

## HAUR TALDEA



Aurten ezin genion hasiera hobegorik eman denborada berriari. Infantilen erakusketa inaguratuko dugu elkartean.

Geldiune bat eta gero, 2000 urtean taldea martxan jarri zen berriro eta hamarkada bat igaro ondoren lekukoa monitore talde berri bateri pasa zitzaion, lana gustora egiten jarraituz.

Haur taldea hazi egin da aurten eta guztion artean mendizale txiki hauek zaindu behar ditugu aurrerantzean honela jarraitzeko.

Erakusketan azken bost urteetan edukitako eboluzioa ikusten da. Elurrarekin ondo pasa, blai eginda bueltatu, hotzez, bero izugarriarekin, etab. ibili gara mendian. Baina beti hurrengo eskurtsioa iristeko gogoarekin.